



1. IBILDIDEA URKIOLAKO BIDEA

DURANGO - IZURTZA - MAÑARIA - URKIOLA

Ibilbidea Durangoko Tabira auzoan hasten da: Gasteizera doan errepidea hartuko dugu. Izurtzara heldu baino lehenago, **Etxaburu** dorretxea ikusiko dugu.

Espaloitik aurrera eginez, Izurtza zeharkatu eta Mañarira iritsiko gara. Mañaria igaro eta Urkiolako lehen maldetara iritsiko gara. Bertan, malda hasieran, ezkerrean dagoen pistan gora hasiko gara.

Bidean gora goazela inguru honetako landare asko eta asko ikusiko ditugu **Untzillatx** mendi magalean zehar. Baserri batzuen ondotik pasatuko gara: **Solaguren, Arriaga eta Bizkarra**, eta **San Martin baseliza** ere ikusiko dugu. Halaber, **Elosu borda** eta **Gatzaieta** baserria ere ikusiko ditugu. Azkenik, Txakurzulo baserri ondotik igarota, Urkiolako hiru gurutzetara helduko gara: ikuspegi ezin ederragoaz gozatzeko aukera.



DISTANTZIA
10 km



IRAUPENA
3 ordu



DESNIBELA
586 m



ZAILTASUNA
Erreza